





Fuente: SITNA-ISPLN



1. Argibide orokorrak

	Eskualdeko balioa	Nafarroa
Biztanleria (2023):	1.277 Emak.: %46,8 Giz.: %53,2	672.155 %49,5 %50,5
Batez besteko adina:	Emak.: 55,3 Giz.: 53,3	46,3 43,2
Ugalkortasun-tasa:	%6,3	-
Gazteen mendekotasunaren indizea:	% 13,6	%24,7
Zahartzaroko mendekotasun indizea:	%61,8	%32,0
Gainzahartzea:	%27,3	%17,2
Atzerritan jaiotako biztanleak:	%7,3	%17,9
Bizi itxaropena:	Emak.: 87,1 Giz.: 82,1	86,8 81,3
Biztanleria-dentsitate:	2,9 biz.km ²	68,9 biz.km ²
Zabalera:	438,97 km ²	9758,6 km ²
Zer Eskualdetakoa den:	Pirinoak (ikus mapa)	
Udalerriak:	Burgui, Castillo-Nuevo, Garde, Isaba, Roncal, Urzainqui, Uztarroiz, Vidangoz	

2. Komunitatea eta osasuna

Faktore soziodemografikoak eta ingurumenekoak. Izabako osasun-eskualde oinarrizkoan, beste eskualdeekin alderatuta, langabezia-tasa (% 5,5), DBHko graduatu titulurik gabeko 18-24 urte bitarteko gazteen ehunekoa (% 1,9) eta 20 urtetik beherako ama duten jaioberrien tasa (% 0,0) txikiak dira, eta

baso-azalera (% 61,9), handia. Hala ere, diru-sarreren desberdintasuneko Gini indizea (% 35,5) handia da; gainera, bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko gizonen etxeen ehunekoa handiena du (% 39,2).


Osasunari dagozkion emaitzak. Izabako osasun-eskualde oinarrizkoa eskualdeen laurden hoberenean dago datu hauetan: 2 motako diabetesa diagnostikaturik duten emakumeen prebalentzia (% 3,3), HbA1c-ren neurketa duten diabetikoak (% 97,2), antsiolitikoak eta antidepresiboak kontsumitzen dituzten gizonak (% 7,8) eta 3 patologia kroniko edo gehiago dituzten pertsonak (emakumeen % 4,3 eta gizonen % 7,6). Gainera, Izabako eskualdeak emaitzarik hoberena du honetan: TA-ren neurketa duten hipertentsoak (% 86,4). Osasun arloko gainerako adierazleak Nafarroako batezbestekoaren inguruan daude.

Inkesta-adierazleak. Hurrengo emaitza doitu* hauek Nafarroa Atlantikoa-Pirinioak eskualdeari dagozkio (LAP zonifikazioa); Izabako eskualde oinarrizkoa zona horretan dago. Nafarroa Atlantikoa-Pirinioek emaitzarik onena dute zenbait adierazletan: frutak eta barazkiak egunero jatea (emakumeek: % 37,1) eta tabakoa egunero erretzea (% 16,8). Aitzitik, emaitzarik txarra du lau adierazletan: bizimodu sedentarioa izatea (emakumeek: % 32,1), gehiegizko pisua izatea (15 urteko edo gehiagoko emakumeek: % 44,0), alkohola astero edatea (emakumeek: % 11,8) eta ongizate txikia izatea oro har (emakumeek: % 35,2).

***Oharra:** Inkesta-adierazleak eta hala eskatzen duten beste adierazle batzuk sexuaren eta adinaren arabera doitu dira, eskualdeen arteko konparazioa egin ahal izateko. Adierazle gordinak hurrengo orrialdearen behealdean agertzen dira.

3. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira adierazle sorta bati dagozkion eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoarekin alderaturik (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarritzkoen multzo osoarekin alderaturik. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero, haien [banakako fitxak](#) ikus daitezke Behatokiaren webgunean.



Adierazleen iturria: 1: Biztan. Mug. Nat.; 2, 6-7: SIPNa (Nafarroako Biztanleriaren Sistema Integratua); 3: Biztan. Akt. Udal. Estat.; 4-5: Errenta. Estat.; 8: SIGPAC (Nekazaritzako Lurzatiaren Informazio Geografikoko Sistema); 10, 24-27, 30-31: Oinarritzko osasun-laguntza; 10-21: ESyCV (Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko Inkesta); 22-23: NOPLOI; 28-29: Farmazia prestazioa

Nafarroa Atlantikoaren adierazleak (10-21) LAP zonifikazioa (NASTAT). Irudian adierazitako balioen kopurua: 4.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzarekin alderatuz (bizimoduaren, morbiditatearen eta osasun sistemaren adierazleentzako eginiko kontrastea).

1. Urteko batez besteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14 eta 19 urte bitarteko emakumeetan; **2.** DBHko graduatu-titulurik edo haren baliokiderik gabeko 18tik 24 urtera arteko gazteen %; **3.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean; **4.** Bizikideen errentaren baturak pobrezia larriaren atalasetik behera egiten duen etxeetan bizi diren pertsonen %; **5.** Diru-sarreraren desberdintasunaren Gini indizea, datu baxuagoak berdintasun handiagoa adierazten du; **6 eta 7.** Bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko pertsonen %, adin horretan familia-etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **8.** Baso-azalaren %; **9.** 170-190 egunetara soilik amagandik edoskitzen duten haurrak %; **10 eta 11.** Frutak eta barazkiak egunero jaten dituzten pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 38,9 eta gizonak 25); **12 eta 13.** 15 urteko edo gehiagoko sedentarioen % doituia: ariketarik egiten ez dutela diote (t. gordina: emakumeak 31,5 eta gizonak 23,1); **14 eta 15.** Astean 100 g alkohol baino gehiago hartzen dutenen % doituia (t. gordina: emakumeak 10,8 eta gizonak 24,9); **16 eta 17.** Tabakoa egunero hartzen duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 12,9 eta gizonak 15,3); **18 eta 19.** Ongizate orokor baxua duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 33,3 eta gizonak 17,2); **20 eta 21.** Pisu gehiegi, gehiegizko pisua edo obesitatea duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 45,4 eta gizonak 58,4); **22 eta 23.** Pisu gehiegi -gehiiegizko pisua edo obesitatea duten- 6tik 9 urtera arteko haurren prebalentzia doituia, OMEK haurren hazkuntzarako emaniko ereduaren arabera (T. gordina: emakumeak 29,8 eta gizonak 31,3); **24 eta 25.** 2 motako diabetesa duten 20 urte edo gehiagoko pertsonen prebalentzia doituia (T. gordina: emakumeak 5,8 eta gizonak 13,3); **26 eta 27.** 3 patologia edo gehiago dituzten 65 urteko edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 7,1 eta gizonak 9); **28 eta 29.** Azken urtean, multzo hauetako bateko 3 ontzi edo gehiago hartu dituzten pertsonen % doituia: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (t. gordina: emakumeak 21,4 eta gizonak 10,4); **30.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua (HbA1c-a) neurtu duen biztanleriaren %; **31.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala (TA) neurtu zaion biztanleriaren %.